EROPEN ETA REFLEXIO TAILERRA
LLUÏSA VIDALEN LANA

Abiapuntua
2016an, Kataluniako Arte Museo Nazionalak (MNAC) Lluïsa Vidal artista modernistaren lanari buruzko atzera begirako erakusketa handi bat antolatu zuen. Museoak emakume artista bati atzera begirako bat eskaini zion lehen aldia izan zen.

Jarduerarako funtsezko datu historikoa
Lluïsa Vidalen obra asko aldatu egin ziren hil ondoren, gizonezkoen sinadurak zituzten obrak baloratuagoak eta hobeto kotizatuak zeudelako. Adibidez, bere margolan batzuei "Lluïsa Vidal" sinadura ezabatu zitzaien, Ramón Casasen sinaduraren faltsifikazioak gainean jartzeko. 2016ko atzera begirako handiak erakunde eta bilduma pribatuetako 70 pieza inguru bildu zituen, eta erakutsi zuen publikoak ez zekiela MNACek kalitate horretako lanak gordetzen zituela bere biltegietan.

Analisirako datuak
MNACren arte modernoaren bilduma iraunkorraren konparazio-taula:

Artista	Generoa	Bilduma iraunkorrean ohikoan ikusgai dauden lanen kopurua	Museoko biltegian/fandoan dauden lanen gutxi gorabeherako kopurua
Ramon Casas	Gizona	+30 (nabarmenduz eskainitako aretoak)	Ehunka (marrazkiak, kartelak, olio-pinturak)
Santiago Rusiñol	Gizona	+15 (nagusitasun zentrala)	Erreserban dagoen lan-bolumen handia
Lluïsa Vidal	Emakumea	2 edo 3 soilik (nagusiki bere Autorretrato, Las amas de casa edo Marta Vidal ahizparen erretratua)	Museoan dagoen bere ondarearen gehiengo handia (1935ean familiak dohaintzan emandako 9 lan nagusi inguru eta atzealdeko marrazki asko)

Hausnarketa
Egiletza kentzea: Lluïsa Vidalen lan asko Ramon Casasenak balira bezala saldu ziren hainbat hamarkadatan.

- **Zer iruditzen zaizu nola baloratu den ekonomikoki eta estetikoki emakumeek egindako artea?**
- **Zure ustez, zer irizpidek definitzen dute artelan bat "lehen mailakoa" dela?**
- **Irizpide estetikoak baino ez dira, ala gizarte- eta merkatu-irizpideak ere badira?**

MNACek mende bat behar izan zuen bere lehen erakusketa monografikoa emakumezko artista bati eskaintzeko (Lluïsa Vidal, 2016).

- **Museoek funts eta biltegietan dituzten obrak ahanzturatik berreskuratzeko betebehar aktiboa dutela uste duzu, edo historikoki ospetsua dena erakustera mugatu beharko luketela?**

Museoetako Iceberg: MNACen bildumako datuen taula aztertzen baduzu, ikusiko duzu Lluïsa Vidalek bere bildumaren zatirik handiena erreserban gordeta duela – biltegietan – eta bere gizonezko garaikideek hormak modu iraunkorrean betetzen dituztela.

- **Zer narrazio jasotzen du MNACeko Modernismoaren aretoetan zehar ibiltzen den bisitari batek, garai hartako artean emakumeak zuen paperari buruz?**
- **Nola eragiten du lanak biltegietan "biltegiratuta" egoteak gerora Unibertsitatera Sartzeko Proban (USP/PAU) ikasten diren lanak hautatzean?**

Idea, sormena eta edizioa
Sara Espinós
Zuzenketa eta itzulpena
Ederne Frontela
Associación La Roldana